

## Artea

**Xabier Arakistain, Montehermosoko koordinatzaile orokorra**

# «Aisia burua hustera zuzenduta dago; pentsatu gabe erlaxatzera»

Montehermoso Kulturunea birmoldaketa estruktural betean dago eta obrak kanpotik suma daitezke. XVI. mendeko jauregi errenazentistaren itxurako kultur gunea Gasteizko alde zaharrean dago, Fray Zacarías kantoian, gaztetxea katedral zaharrarekin elkartzen den kalean hain zuzen. Xabier Arakistain Arakisek zuzentzen du egun.

MAIDER LACALLE

Argazkiak: Jose Ramón Gómez

KREAKO ZUZENDARIAK, Araceli de la Horrak, 2006 urtean utzi zuen Montehermosoko koordinazio orokorra, eta ordudunik ileorde beltza eta makillajea eramatea gustatzen zaion *Arakisek* hartu du eserlekua hainbeste istilu sorrarazi zuten eskaile-ra mekanikoetara ematen duen bulegoan. Hala ere, oinordetzan hartutako lanak medio, aurreko urtera arte ez ziren hasi *Arakis* eta bere taldea zentroko zuzendaritza berria beraiengan hartuta lanean.

Feminismoa aldarrikatuz eta artea ikuspuntu desberdin batetik erakusteko asmorekin sortu zen Montehermoso Arte, Kultur eta Pentsamolde Garaikideko zentro berria; “talde esfortzu” bat dela dio *Arakisek*. Madrilen jaio zen, eta Bilbon bizi izan da hemezortzi urtez. Feminista petoa, azaldu duenez Montehermoso da Espainiako Estatuan Berdintasun Legea betetzen duen zentro kultural bakarra.

**Zer aldaketa uste duzu jasan dituela Montehermosok aurreko zuzendaritzatik honetara?**

Uste dut bi gauza oso diferente direla. Lehen mota bateko kezka existitzen ziren eta orain beste mota batekoak. Guk publikoari zuzendutako kultura egin nahi dugu; ildo herrikoa duena eta era kritikoan kontsumitzen dena. Hain ohituta gauden aisialdi populista sortzearen kontrakoa da.



Tamalez, herrialde honetan oso gogoe- ta gutxi dago eta esfortzurik eskatzen ez duen aisiak inguratzen gaitu. Aisia burua husteru zuzenduta dago; pentsatu gabe erlaxatzera. Kultura ez da bakarrik saunara joatea edo masaje bat hartzea. Gu praktika artistikoan oinarritutako arte, kultura eta pentsamendu garaikidea sortzen ari gara. Interesatzen zaizkigun praktika artistikoak Bourdieuk *eremu mugatua* izenez kalifikatu zituenak dira, hau da, nazioarteko zirkuituan daudenak eta jakintza sortzen dutenak. Azken finean, egiten duguna gizartea era kritikoan aztertzea da, eztabaidan oinarritutako gune bat sortzeko asmoz. Horrela, pentsatu ahal izango dugu mundu hobe batean. Hori izan beharko litzateke XXI. mendeko zentro kultural baten egitasmoa.

Montehermoso Udalaren pean dagoen zentroa da, eta gure aurrekontuak Kultura Saitetik datoz. Egun baliabideak sexuen arabera banatzen ari gara; feministek sexu kuotak deitu dieten horiek. Arte, kultura eta pentsamendu garaikidea eskaintzeaz gain, aukera berdintasuna ere jorratu nahi dugu. Espainiako Estatuan ez dago kultura zentro edo museorik egungo Berdintasun Legea jarraitzen duenik. Aitzindariak gara horretan; gure gunearen erdia emakumeei eskaintzen diegu eta aurrekontua emakume eta gizonen artean banatzen dugu, era berdintsuan. Neurri hori ezinbestekoa dela uste dut.

**Nondik dator Montehermosoren izaera feminista?**

Pentsatzeko era feminista da gurea. Askotan feminismoak prentsa txarra du. Ismo honek nahi du sexuen berdintasuna bermatuko duen eraldaketa soziala; horregatik daramatza feminismoak 300 urte praktika politikoa, soziala eta teorikoa aplikatzen. Horrez gain, 40 urte daramatza praktika artistikoa lantzen. Berdintasunaren aldeko modernitate diskurtsoetan du jatorria eta Amerikako Estatu Batuetan mugimendu beltzari oso lotuta egon zen. Egun diskriminatuta dagoen jende talde bati egiten dio erreferentzia. Feminismoa berdintasun diskurtsoa da; ez da matxista. Ni feminista naiz. Hona etorri aurretik hamar urtez aritu nintzen begirada feministarekin lan egiten.

**Nola islatzen dute ildo feminista hori Montehermoson erakusketak egiten dituzten artistek?**



Era desberdinetan: guk desberdintasunak lehen planoan jartzen ditugu eta horri esaten diogu feminista izatea. Nekatuta nago Montehermoson arte feminista egiten dugula entzuteaz. Ez! Montehermoson ez dugu arte feminista egiten; arte, kultura eta pentsamolde garaikidea egiten dugu. Egiten ditugun gauzen artean jarraitzen dugun lerroetako bat feminismoarena da, baina badago post-kolonialismoarena ere, eta beste hainbat ere bai. Montehermoso oso gune plurala da: feministatzat katalogatzea errealitatea aldatzea da, kontserbadorea izateaz gain.

**Zer ikus dezakegu momentu honetan Montehermoson?**

*Living Together*. Emma Dexterrek –Londreseko ICAko zuzendariordea eta Tate Moderneko komisario nagusia izandako-

ak- eta biok komisariatutako erakusketa da. Guztion interesa suspertu beharko lukeen gai interesgarri batean oinarritzen da: hain bizkor doan XXI. mendeko gizarte honetan, krisi ekonomikoaren erdian, elkarbizitzak duen esanahiaren inguruan egiten du gogoeta. Inoiz ez dira egungoak bezalako migrazio mugimenduak egon. Gainera, identitate sexualak erabat ireki dira eta mundua gero eta jende desberdinagoz osatuta dago. Hori jakinda, bi era desberdinetan bizi gaitezke elkarrekin: gure elkarbizitza izan daiteke negoziatutakoa edo inposatutakoa. Mundu hobegoan bizitzeko behar dugun elkarbizitza nola negoziatu deza-kegun eztabaidatzen ari gara Montehermoson.

Erakusketa horren barruan, orain Frantziatik datorren *Société Réaliste* kolektiboak sortutako muntaia dugu ikusgai. AEBetan bizitza lortzeko beharrezkoa den *Green Card* edo txartel berdeari egiten dio erreferentzia. 2006. urtean Europar Batasunean mekanismo beraren inguruan eztabaida hasi zen, alegia, Europar sartzeko txartel berde hori izatea beharrezkoa ote zen atzerriko lagunentzat. *Société Réaliste* webgune bat abian jarri du, eta *Green Card*-a eskatzeko asmoz jende asko hurbiltzen ari da. Montehermoson pertsona horiek nortzuk diren ikus daitezke. Horrez gain, proiektuak mugimendu migratorioen inguruan sortutako ekonomia ere aztertzen du; esaterako, egoera eskasenetan dagoen jendea esplotatu egiten duten industria eta enpresen inguruko hausnarketa egiten du, eta islatzen du estatuak zer zerikusi duen horrekin.

Proiektu hauek diskurtso artistikoak dira eta horrelako gaiez hausnartzera gonbidatzen dituzte herritarrak; hori da arte garaikidea.

### Zer motatako publikoa gerturatzen da Montehermosora?

Montehermoso oso zentro handia da, eta oso konplexua. Ekintza ugari eskaintzen ditu: alde batetik erakusketak ditugu, eta bakoitza ekintza kultural batekin aurkeztzen da, bai artearen aldetik, baita giza zientzien aldetik ere. 55 urtetik gorako pertsonentzako ikastaroak ematen ditugu eta hemendik gutxira abian jarriko dugun *online* artxiboan ari gara lanean. Umeen-

### "Guk desberdintasunak lehen planoan jartzen ditugu eta horri esaten diogu feminista izatea"

tzako ekintzak ere eskaintzen ditugu eta kulturarekin erlazionaturiko gaiak jorratzen aritzen gara. Esaterako, txekiar marrazki bizidunen ziklo bat dugu abian: hor erakutsiko ditugun filmak ez dira *Disneyk* egiten dituenak bezalakoak; ez dugu nahi umeak ohitzea hain merkantilizatuta dauden produktuetara, ez baitute gonbidatzen gogoeta egitera. Montehermosora etortzen dira haurrak ikastoletatik, 55 urtetik gorako jendea eta gure edadekoa, bai erakusketa bat ikustera, baita kontzertuak eta DJak entzutera ere.

### Zer nolako konexioa du Montehermosok Gasteizekin?

Gasteizentzat oso aproposa da. Oso hiri partikularra da: hamai-

ka gizarte-etxe ditu –Bilbok eta Donostiak ez dituzte hainbeste–. Arte garaikide eskaintza handia du Gasteizek; egun Amerika plataforma du, baita Arte Ederretako museoa ere. Hemendik gutxira Krearen sorrera ikusiko dugu eta nola ez, Montehermoso bera. Pentsamendu bakarra ez da interesgarria; ezin dugu denok berdina egin. Interesgarriena bakoitzak indibidualtasun maila bat izatea da, eta horrek zehaztea eskaintza kulturala. Zentzu horretan Montehermoso

Gasteizen neurrira eginda dagoela uste dut, eta lehendik zetorren aldaketa baten produktua da. Ni hona iritsi nintzen aurreko koordinatzailea Kreara joan zelako, arte gune berri batera. Beranduago Artiumen zuzendaritza aldaketa egon zen eta une berean Amerika Plataforma izan zena berriz ireki zuten. Horregatik diot Montehermoso martxan dagoen prozesu baten zati dela. Gasteizek duen eskaintza

kulturala inguruko hiriena baino zabala goa da.

### Zer da Arakis Montehermosorentzat?

Montehermoso lan taldea da. Ni lehiaketa baten bidez hasi nintzen hemen lanean; proiektu bat aurkeztu nuen eta irabazle atera nintzen. Aurretik *freelance* moduan aritu nintzen; arte komisario independentea nintzen. Hona sartu aurretik oso argi nituen eman behar ziren aldaketak eta egun talde bat gara. Montehermosoko koordinatzaile orokorra naiz –zuzendariaren postua ez da berez existitzen– eta nire lana taldea zuzentzea eta proiektu baten lerroak aukeratzea dira. ■

### "Proiektu hauek diskurtso artistikoak dira eta horrelako gaiez hausnartzera gonbidatzen dituzte herritarrak; hori da arte garaikidea"